



NAMIBIAKO HEZKUNTZA MINISTERITZAK USURBILGO LANBIDE ESKOLA HARTU DU EREDU.

Usurbilgo Lanbide Eskolan Namibiatik etorritako Hezkuntza Ministeritzako hamar lagunez osatutako batzorde bat izan da bisitan Namiabiako enbaxadoreak lagunduta.

Etorrera honen helburua Usurbilgo Lanbide Eskolak dauzkan metodologia, errekurtsuak eta teknologi berrikuntzak ezagutzea izan da.

Partaideek eskolak dauzkan alor ezberdinetan azalpenak eta iritziak jaso dituzte PBL metodologia, Usurbilgo Lanbide Eskolak dauzkan errekurtsu eta erabiltzen den kudeaketa sistemaren inguruan.

Namibiako ordezkariak Usurbilgo Lanbide Eskolan jasotako ereduak Namibiako Lanbide Heziketan hobekuntza atalak jorratzeko aukera ezin hobetzat jo dute.